

Euskal AEko administrazio publikoko establezimenduen % 84,1ek sare sozialak erabiltzen ditu tresna gisa 4.0 industriaren esparruan

Enplegatu publikoen % 5,3k telelana egiten du 2024an, eta enpresen kasuan % 11,0ra igotzen da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko administrazio publikoaren establezimenduen % 84,1ek sare sozialak erabiltzen ditu 4.0 industriaren esparruan.

Sare sozialen erabilera da aztertzen diren bederatzi adierazleen Administrazioaren eraldaketa digitalari dagokionez adierazlerik azpimarragarriena. Bigarrenik, Zibersegurtasuneko jarduerak daude, % 70,9rekin. Ondoren, Hodeiko zerbitzu informatikoak (Cloud Computing): zentroen % 61,9k ahokaleku hori ordaintzen dute; izan ere, edozein lekutan kokatutako edozein gailu mugikor edo finkotik Internetarako konexio baten bidez informazioa edo zerbitzuak eskuratzeko aukera ematen du.

Gutxien erabiltzen direnak: Bezeroentzako aplikazio mugikorrak (% 50,3), Gauzen Internet (IoT), % 43,8, Makrodatuen analisia (Big Data), % 40,5, Adimen artifizialeko sistemen erabilerak, % 29,1, 3D inprimagailuak, % 10,4, eta Robotika, % 9,0.

Euskal AEko administrazio publikoaren establezimenduetako 4.0 industriaren adierazleak, enplegu-geruzaren arabera (%). 2022-2024

	Guztira			10 langile eta gehiago		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Sare sozialen erabilera enpresa-helburuetarako	83,9	85,5	84,1	89,9	90,9	92,6
Zerbitzu informatikoen erabilera "hodelan"	46,0	58,4	61,9	51,7	66,7	67,9
Bezeroentzako aplikazio mugikorrak	.	48,5	50,3	.	53,0	52,8
Gauzen Interneten erabilera (IoT)	37,7	44,2	43,8	40,5	48,5	44,3
Zibersegurtasuneko jarduerak	59,5	66,4	70,9	64,8	71,9	75,4
Makrodatuen analisia (Big Data)	36,4	37,9	40,5	41,3	41,2	42,9
Adimen artifizialeko sistemen erabilera	17,8	17,1	29,1	15,6	16,4	28,3
3D inprimagailuen erabilera	9,7	10,4	10,4	14,3	16,2	18,2
Robotikaren erabilera	6,2	6,6	9,0	11,5	6,5	8,8

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Administrazio publikoko langileei dagokienez, batez beste, % 95,6k erabiltzen ditu IKT sistemak (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak), eta % 7,8 IKT sistemetan adituak diren langileak dira. Era berean, guztizkoaren herenak baino gehiagok, % 38,3k, urruneko konexioa du erabilera profesionalerako gailu eramangarri baten bidez.

Bestalde, Administrazioan, zentroen tamainak ez du alde nabarmenik sortzen IKT teknologiak erabiltzen dituzten langileen ehunekoan.

Langile horiek sexuaren arabera aztertuz gero, IKT sistemetako espezialistetan gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da: gizonen % 59,9 eta emakumeen % 40,1. Hala ere, bai IKTen erabilerari dagokionez, bai urruneko konexioari edo telelanari dagokionez, emakumeen ehunekoa % 60 ingurukoa da, eta gizonen kasuan, berriz, % 40 ingurukoa.

Jarduera-adarren arabera, ordea, alde handiagoak daude. Hala, aipagarrienak honakoak dira: IKTen erabilera erabatekoa da Osasun-jardueretan, eta txikiagoa da Gizarte-, kultura- eta bestelako jardueretan (% 85,1), oso handia izanik ere. Era berean, IKT espezialistak nabarmen ohikoagoak dira Administrazio publikoan eta defentsan (% 13,2) gainerako jardueretan baino, eta Hezkuntzakoak (% 9,9) bigarrenak dira sailkapenean. Hain zuzen ere, Hezkuntzan agertzen da gehien urruneko konexioa enplegatuen artean (% 69,5). Azkenik, telelangileen presentziaren proportzio handienak Administrazioaren beste jarduera batzuetan (% 15,6) eta Administrazio publikoan eta defentsan (% 7,4) ikusten dira.

Administrazio publikoaren Enplegatuak IKTei dagokienez, lurralde historikoaren eta jarduera-adarraren arabera (%). 2024

	IKT erabiltzaileak			IKT espezialistak			Enplegatuak urruneko konexioarekin			Telelangileak		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Euskal AE	95,6	62,3	37,7	7,8	40,1	59,9	38,3	60,8	39,2	5,3	60,4	39,6
Araba/Álava	91,2	63,3	36,7	5,3	38,9	61,1	34,0	60,9	39,1	4,3	70,1	29,9
Bizkaia	97,6	62,0	38,0	10,0	39,8	60,2	40,7	61,8	38,2	5,2	54,7	45,3
Gipuzkoa	95,4	62,2	37,8	5,9	41,5	58,5	37,2	59,2	40,8	6,2	61,2	38,8
Jarduera-adarra												
Herri administrazioa eta defentsa	97,1	50,5	49,5	13,2	42,8	57,2	35,7	47,7	52,3	7,4	65,3	34,7
Hezkuntza	98,2	64,7	35,3	9,9	41,7	58,3	69,5	60,6	39,4	2,7	50,8	49,2
Osasun jarduera	100,0	79,8	20,2	1,4	44,3	55,7	15,4	79,3	20,7	0,4	61,1	38,9
Jarduera sozial, olgetazkoak, kulturalak eta beste	85,1	66,4	33,6	5,1	36,5	63,5	25,3	64,6	35,4	2,4	74,7	25,3
Administrazioaren beste jarduera batzuk	87,8	44,9	55,1	9,4	26,6	73,4	49,5	45,7	54,3	15,6	50,9	49,1

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Administrazio publikoko zentroei dagokienez, guztiek dituzte IKT sistemen erabiltzaileak. Gainera, % 69,1ek IKT sistemetako espezialistak ditu, % 83,8k bere lantokietarako urruneko sarbidea duten langileak ditu, eta, lehen aipatu bezala, establezimenduen % 40,3k telelaneko langileak ditu, lanaldiaren erdia gutxienez.

Enplegatu publikoen % 5,3k telelana egiten du 2024an, eta enpresen kasuan zifra hori % 11,0ra igozten da

Bestalde, Administrazio Publikoko zentroen % 40,3k telelaneko langileak ditu 2024an. Era berean, langile publikoen % 5,3k lantokitik kanpo lan egiten du 2024an, **lanaldiaren erdia gutxienez, erregularitasunez**, sare telematikoak erabiliz IKT sistemekin konektatzeko, eta, horregatik, telelangiletzat har daiteke. Enpresen kasuan, ehuneko hori bikoiztu egiten da, eta % 11,0ra igozten da.

Zifra horiek, nahiz eta pandemia betean 2021ean lortutako maximoak baino pixka bat txikiagoak izan (telelana egiten duten pertsonak dituzten zentroen % 44 eta telelana duten langileen % 11,6), urte horren aurreko erregistroak baino askoz handiagoak dira, eta egonkor samar mantentzen dira une horretatik aurrera.

Telelana Euskal AEko Administrazio Publikoan, jarduera-adarraren arabera (%). 2017-2024

	2017		2018		2019		2020		2021		2022		2023		2024	
	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua	Zentroak	Enplegua
Guztira	9,2	1,7	15,1	1,4	15,1	1,6	26,1	2,1	44,0	11,6	36,7	5,4	40,0	6,6	40,3	5,3
Herri administrazioa eta defentsa	11,1	1,1	24,5	1,2	20,3	1,6	33,6	2,7	63,1	16,5	51,9	7,4	63,1	12,0	56,7	7,4
Hezkuntza	7,3	2,8	10,2	1,7	8,8	1,4	16,0	2,1	17,7	5,4	12,9	2,9	13,3	3,4	16,7	2,7
Osasun jarduera	4,5	0,7	15,2	0,7	28,2	0,7	59,7	0,7	23,7	5,8	4,6	0,3	2,7	0,3	4,5	0,4
Jarduera sozial, olgetazkoak, kulturalak eta beste	9,9	1,1	9,1	1,5	8,2	0,9	18,2	1,1	42,7	9,9	48,8	4,7	49,2	8,8	39,5	2,4
Administrazioaren beste jarduera batzuk	11,3	3,5	11,5	2,6	14,6	4,4	15,8	4,5	66,0	23,4	54,5	15,4	55,0	11,8	66,5	15,6

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Euskal enpresen % 97,3k izapide elektronikoak egiten ditu administrazio publikoarekin

Euskal enpresek e-Administrazioa erabiltzeari dagokionez, enpresen % 97,3k izapide elektronikoak egiten ditu Administrazio Publikoarekin 2024an, zuzenean, hirugarrenen bidez (aholkularitzak...) edo bi prozeduren bidez. Hala, enpresen % 61,8k zuzenean egin du izapidereen bat, eta % 77,5ek, berriz, hirugarrenen bidez.


10 langile eta gehiagokoen kasuan, establezimenduen % 98,3ra iristen da izapidetze elektronikoa. Enpresa horiek, baliabide gehiago dituztenez (haien tamainari zor), zuzenean egiten dituzte izapide horiek, % 88,6k; hirugarrenen bidez, berriz, ehuneko hori % 64,3ra jaisten da.

Egiten dituzten izapide elektroniko nagusien helburua da informazio mota desberdinak lortzea (% 72,7), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 69,8), betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 66,6) eta administrazio-prozedurak modu erabat elektronikoan izapidetzea (% 64,1). Bide hori oso erabilia da, halaber, enplegatuen kotizazio sozialak aitortzeko (% 66,9) eta hainbat zerga mota betetzeko: BEZa (% 81,7) eta sozietateak (% 62,3), batez ere.

Zein administrazioarekin egiten dituzte Euskal enpresek izapide horiek modu elektronikoan? Bada, Foru-aldundiak (% 89,9) eta Administrazio zentrala (% 75,1) nabarmentzen dira, eta ehuneko horietan eragina dute bi administrazioek zerga nagusien gainean dituzten eskumenek. Ondoren, Eusko Jaurlaritza (% 66,3), toki-erakundeak (% 37,2), Europar Batasuna eta beste batzuk (% 12,6).

10 langile eta gehiagoko enpresetan, Eusko Jaurlaritzaren (% 82,7), Foru Aldundien (% 89,8) eta Administrazio Zentralaren (% 88,9) arteko aldea nabarmen murrizten da. Era berean, nabarmen igo da e-Administrazioaz baliatzen diren enpresen proportzioa toki-erakundeekin (% 56,3) eta Europar Batasunarekin eta beste batzuekin (% 23,1).

Administrazio publikoarekiko izapideak era elektronikoan egiten dituzten euskal enpresak (%). 2024



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Administrazioan ekipamenduen eskuragarritasun handiagoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera enpresetan baino

Administrazio publikoko zentroen % 99,4k webgunea, bere webgunea edo dagokion erakundearena du 2024an. 10 langile eta gehiagoko zentroetan, proportzio hori % 100ekoa da.

Era berean, Euskal AEko Administrazio Publikoaren ia zentro guztiak oinarritzko IKT ekipamenduez baliatzen dira 2024an. Web orriaz gain, ikastetxe publiko guztiek dute ordenagailua eta Interneterako konexioa.

Enpresen sektorearekin alderatuta, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) sartze-ehunekoak handiagoak dira administrazio publikoen zentroetan. Web orriaren erabilgarritasunari dagokionez, aldea 42 ehuneko-puntukoa da Administrazioaren alde (% 57,4 enpresen sektorean).

2024an IKT ekipamenduak erabiltzen dituzten enplegatu publikoen proportzioa ere oso handia da: langile publikoen % 93,9k ordenagailua erabiltzen dute eta % 92,5ek Interneterako sarbidea dute. Enpresa-sektorean, langileen erabilera-ehunekoak txikiagoak dira, % 77,5 eta % 74,9, hurrenez hurren.

Adierazi behar da ehuneko handi horiek, bai ekipamenduetan, bai langileen erabileran, enplegu-maila edozein dela ere erregistratzen direla, eta, beraz, Administrazio Publikoan ez du ia eraginik zentroen tamainak.

IKT ekipamenduak eta erabilera maila Euskal AEko administrazio publikoaren establezimenduetan (%). 2024

	Ordenagailu pertsonala		Internet		Sakelako telefonoa	Webgunea
	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald	% establ. ald
Guztira	100,0	93,9	100,0	92,5	99,4	84,2
Herri administrazioa eta defentsa	100,0	94,1	100,0	94,1	99,7	93,0
Hezkuntza	100,0	98,0	100,0	98,0	100,0	59,2
Osasun jarduera	100,0	98,1	100,0	97,9	100,0	100,0
Jarduera sozial, olgetazkoak, kulturalak eta beste	100,0	84,0	100,0	79,0	99,4	88,2
Administrazioaren beste jarduera batzuk	100,0	86,3	100,0	80,5	97,9	91,6

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Gainera, zentro gehienek (% 99,8) segurtasun informatikoko neurriren bat hartzen dute, eta pasahitz seguruak (% 99,1), software eguneratua (% 98,9) eta kanpoko Backup-ak (% 93,2) erabiltzen dituzte.

Euskal AEko Administrazio Publikoak garrantzi handia ematen dio Interneten presentzia izateari Web orriaren bidez, % 99,4ko portzentaje altuaren arabera. Izan ere, Interneten presentzia duten zentroyen ehunekoa handia da, norberarena edo kide den erakundearena, eta 10 langile edo gehiagoko zentroetan % 100era iristen da. Enpresen sektorearen kasuan, ehunekoa % 57,4ra mugatzen da establezimendu guztietarako, eta, hurbilago, % 92,5era hamar langile edo gehiagoko enpresetarako.

Webgune horietan Erakundeari berari buruzko informazio orokorra aurki daiteke, kasuen % 100ean. Gainera, datu konfidentzialen pribatutasunaren/babesaren aitorpena dute % 86,1ek, enpresaren profiletarako estekak komunikabide sozialetan (Facebook, twitter...), % 76,1ek, lan-eskaintzei buruzko informazioa, % 69,8k, eta produktuen katalogoak edo prezio-zerrendak, % 62,6k, besteak beste. Enpresen sektoreari dagokionez, Administrazioak garrantzi handiagoa ematen dio Webgunean enplegu-eskaintzei buruzko informazioa izateari (enpresen % 69,8 eta enpresen % 27,1, hurrenez hurren) eta desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasunari (Administrazioaren webguneen % 48,7k ematen du informazio hori, eta enpresen webguneen % 21,3k).

Webguneetara sartzeko hizkuntzei dagokienez, euskara eta gaztelania nabarmentzen dira ehuneko berarekin (% 99,0); ingelesez, berriz, orrien % 31,1ean nabigatu daiteke, eta beste hizkuntza batzuetan % 21,2an. Enpresen sektorean, euskarazko web orrien erabilgarritasuna nabarmen txikiagoa da, % 42,1, eta, batez besteko txikiagoan, ingelesezko web orriena (% 27,9) edo beste hizkuntza batzuetakoa (% 12,9).

Euskal AEko administrazio publikoaren webgunea duten establezimenduetako hizkuntzak (%). 2024

	Webgunea	Webguneko hizkuntza			
		Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Besteak
Establezimenduetan, guztira	99,4	99,0	99,0	31,1	21,2
Iurralde historikoa					
Araba/Álava	99,2	98,4	99,4	20,2	13,5
Bizkaia	99,8	98,5	99,5	31,0	16,9
Gipuzkoa	99,0	99,8	98,2	36,8	30,7
Jarduera-adarra					
Herri administrazioa eta defentsa	99,7	98,6	100,0	34,5	29,0
Hezkuntza	100,0	100,0	96,5	16,7	1,2
Osasun jarduerak	100,0	100,0	100,0	2,9	3,9
Jarduera sozial, olgetazkoak, kulturalak eta beste	99,4	99,8	100,0	20,0	11,7
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	97,9	96,9	99,6	68,0	51,8

Data 2024ko Azaroaren 22a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tfno. 945 01 75 62